

## **2019KO ABENDUAREN 2AN UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIZKO BILKURAREN AKTA.**

Udaletxeko Bilkura Aretoan, idazpuruko eguneko arratsaldeko seiak eta hogeita hamar minutu direnean, Alkateak deituta eta lehen deialdian, Udalbatzarra elkartzen da, jarraian adierazten gai zerrendarekin ohizko bilkura egiteko:

1.- GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO HAUR ETA GAZTEEN SUSTAPENERAKO ERAKUNDEARTEKO SAREARI, GAZTEMATIKARI, ATXIKIMENDUA.

2.- EGOIN. DONEJAKUE BIDEKO PEREGRINO ETXEA EGITEKO LANEN FAKTURA.

3.- MURGIL ERAIKUNTZAK S.L. DONEJAKUE BIDEKO PEREGRINO ETXEA EGITEKO LANEN FAKTURAK.

4.- ERAKUNDE EZ GUBERNAMENTALEN ARTEAN DIRULAGUNTZEN BANAKETA.

5.- UDAL POLIKIROLDEGIA, IGERILEKUA ETA BERTAKO TABERNAREN ZERBITZU KONTRATUA LUZATZEARI BURUZKO ERABAKIA.

6.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.

.7- GALDE ERANTZUNAK.

### **ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:**

#### **ALKATE-LEHENDAKARIA**

Joseba Izagirre Arozena jn. (Zegama Lantzen).

#### **ZINEGOTZIAK**

Izaskun Igoa Arizcorreta and. (Zegama Lantzen).

Ibon Zabaleta Urbizu jn. (Zegama Lantzen).

Iñaki Xabier Albizu Ormazabal jn. (Zegama Lantzen)

Imanol Garmendia Iruretagoiena jn. (EH Bildu).

Iosune Azurmendi Telleria and. (EH Bildu).

Aritz Agirre Garikano jn. (EH Bildu).

José Luis Azurmendi Larrea jn. (EH Bildu).

### **EZ ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:**

Julian Iraola Lapizondo jn. (Zegama Lantzen). Ez etortzearen arrazoia ematen da.

Idazkaria, Igor Alustiza San Vicente.

## **1.- GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO HAUR ETA GAZTEEN SUSTAPENERAKO ERAKUNDEARTEKO SAREARI, GAZTEMATIKARI, ATXIKIMENDUA.**

Alkateak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Haur eta Gazteen Sustapenerako Erakundearteko Sareari, Gaztematikari, atxikimendu proposamena aurkezten du jarraian adierazten denaren arabera:

Botere publikoek haur, nerabe eta gazteei dagokienez duten arduraren berezia ez da haien babestera mugatzen; haur eta gazteen sustapena sustatzea ere badute xede. Haur, nerabe eta gazteen inguruko berariazko politika publikoetan, babesa eta sustapena alderdi osagarri eta ezinbestekoak dira; izan ere, pertsonen bizitzako aldi horien berezko zaurgarritasunaz arduratzea bezain funtsezkoa da gizakien bizitzan oinarritzeko diren etapa horietan haien garapen osoa bultzatzea. Haur eta gazteen sustapenerako politikek, haien babeserako politikekin batera, haur, nerabe eta gazteentzako berariazko jardueren esparru bat osatzen dute eta, aldi berean, haur, nerabe eta gazteen eskubideekiko arduraren areago nabarmen dute eta eraginkorrago egiten, hala politika publiko guztietan nola gizarte bizitzan.

Euskal Autonomia Erkidegoak oraindik gazteriar buruzko lege orokor edo globalik ez badu ere (onartzeko bidean dago), ezin da bazter utzi arlo horretan izan den jardueraren arauemaile eta planifikatzailea, besteak beste gazte planetan jasoa. Arautze eta partaidetza jardueraren hori lagungarria izan da haur eta gazteen sustapeneraren jarduketaren esparrua garatu, moldatu eta ezagutzera emateko; horren fruitu gisa nabarmendu daitezke, adibidez, Euskadiko Kontseiluaren 6/1986 Legea eta Kultura sailburuaren 1999ko abenduaren 10eko Agindua, Gazteen Euskal Behatokiari buruzkoa.

Hain zuzen ere, azken hogeita hamar urteetan Gipuzkoako gizarte zibilak eta erakunde publikoek ibilbide nabarmena egin dute haur eta gazteen sustapenean. Ibilbide horrek arduraren publikoa eta lankidetzazko partaidetza baliatzeko eredu bat ekarri du, hiru etapak, haurtzarora, nerabezarora eta gazterira, *continuum* gisa hartzen dituenak. Haur eta gazteen sustapenerako politika sektoreen arteko koordinazioa bultzatu eta zeharkako eragina izan nahi duen arlo gisa eratu da haur, nerabe eta gazteekin zuzenean esku hartzeko zerbitzu propioak dituenak, haur eta gazteen partaidetza sustatuz politika sektorial guztietan eta gizarte bizitzan haur, nerabe eta gazteekin adeitsuak edo haien aldekoa izango den ikuspegi bat sortzeko.

Gertuko udalen ardurapeko zerbitzu eta jardueren aldeko apustua egiten jarraitu dugu, bai eta koordinazio eta laguntza lanetan Gipuzkoako Foru Aldundiaren funtzioa egituratzen eta indartzen ere, udalaz gaindi eta lurralde mailan. Apustu horri esker, 2009an Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sustapenerako Sarea, Gaztematika deitua, sortu zen. Sare horrek, hainbat urtez martxan egon eta hobetuz eta prozesu eta aktibo baliotsuak sortuz jardun ondoren, udalen eta aldundiaren arteko lankidetzaren hitzarmenak oinarri harturik, Gipuzkoako biztanleria eta lurralde ia osoa hartzen du, eta ehun zerbitzu egonkor baino gehiago ditu martxan eta beraien hobekuntza

Ibilbide hori eginda, gaur egun ezinbestekoa da sare hori juridikoki berrestea, mantentzea eta are sakontzea, jardunbide egokiak trukatzeko eta arlo horretan zailtasun edo gabezia

gehien dituzten udalei laguntza instituzionala emateko ez ezik, Gipuzkoako Lurralde Historikoan partaidetza eraginkorra sendotzeko topagune eta proposamenen iturri izan dadin, jardunbide egokiak partekatu ahal izateko sare eta esparruak eraikiz, sinergiak bilatuz eta gazteen sustapenerako prozesuak berrelikatuz, modu horretan sorkuntza partekatuaren eta lankidetzazko gobernantzaren alde eginez. Foru dekretu honek, beraz, aitorten juridikoa ematen dio sareari, eta, horrekin batera, baita merezi duen bultzada ere.

Horren ondorioz, 2019ko apirilaren 16an, elaborazio eta kontraste prozesu zaindu baten ondoren, besteen artean EUDELekin, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Haur eta Gazteen Sustapenerako Erakundearteko Sarea sortzeari buruzko Dekretua onartu zen. Onarpen honekin Sareak aintzatespen juridikoa ematen zitzaioan eta, bide batez, merezi duen bultzada.

Hain zuzen, Dekretu honen 12. artikuluan, Udalak Sareari atxikitzeari buruz ondorengoa esaten da:

*12. artikulua. Udalak eta gainerako tokiko erakundeak Haur eta Gazteen Sustapenerako Erakundearteko Sareari atxikitzea.*

1. *Udalen atxikimendua sarera, honi buruzko berariazko udal akordioaren bidez gauzatuko da.*
2. *Sareari atxikitzeak gizonen eta emakumeen arteko berdintasun ikuspegia txertatzea dakar berekin, eta konpromiso hauek betetzea:*
  - a) Aktiboki parte hartzea Sareako organo eta egituretan esleitutako pertsonen bitartez, hala arlo politikoan nola teknikoan.
  - b) Proposamen eta ekimenen bidez Sarearen funtzionamendua bultzatzea.
  - c) Sareko organo edo egitura eskudunen bidez Foru Aldundiak tokiko erakundeen alde haur eta gazteen sustapenaren arloan bideratzen dituen diru-laguntza lerroak banatzeko irizpideak zehazteko eta ezartzeko prozesuetan parte hartzea eta erabakiak hartzea.
  - d) Haur eta gazteen sustapenerako programa zehatzak, prestakuntza programak, topaketak, mintegiak eta bestelako jarduera hezitzaile batzuk proposatzea, Sarean eskumena duten organo edo egiturek eztabaidatu ditzaten eta erabakiak har ditzaten.
  - e) Haur eta gazteen sustapena errazteko gida metodologikoak edo bestelako edozein bitarteko edo tresna proposatzea, eta batez ere sustapen planen ereduak eta estrategiak diseinatzea.
  - f) Sareari ezagutzera ematea haur eta gazteen sustapenaren arloan martxan jarri diren jardunbide egokiak, parte hartzen duten erakundeen ezagutza aberastu dezaketanak eta haur eta gazteen sustapenerako foru edo udal politikak –eta gainerako tokiko erakundeenak– hobetu ditzaketanak.
  - g) Sarearen aurrekontuak ezagutzea eta, hala badagokio, haien inguruan erabakiak hartzea, horretarako eskumena duten organo edo egituren bidez.

h) Foru aldundiak udalerriei eta gainerako tokiko erakundeei laguntza teknikoa eta lankidetzan eskaintzeko aurrera eramaten dituen prozesuetan laguntzea, arazoak edo konpondu gabeko auziak behar bezala identifikatuz eta haur eta gazteen sustapenerako tokiko politikak hobetzea xede duten arauak eta ordenantza ereduak, proposatutako gida metodologikoak eta Sarean bultzatzen den bestelako edozein ekimen sustatuz.

i) Sarea dinamizatzea dauden egituren bitartez, eta, beharrezkoa balitz, Foro Teknikoak koordinatzea.

Gure udalaren kasuan, aipatutako Sarean 2010etik hartu du parte, eta denboraldi horretan, parte-hartzea, nagusiki, urtero hitzarmenak sinatuz gauzatu da.

Horren ondorioz gure entitatea, denboraldi horretan, Gaztematika Sarearekin lankidetzan aritu da, eta Sarea osatzen duten entitate desberdinek egiten duten lanaren onurak jaso ditu: Erreferentziatzeko markoa, eztabaidarako eta elkarrizketarako hainbat gune, baliabide, gaitasun eta prozesu bateratuak, aholkularitza teknikoa eta bide-laguntza, lurralde mailako plan komun bat, arloari buruzko ezagutza, jakintza eta prestakuntza, diru-laguntzak, lurralde mailako programak, proiektuak eta kanpainak, ...

Horrenbestez, gure udalak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Haur eta Gazteen Sustapenerako Erakundearteko Sarearekin bat egiteko xedez, hori arautzen duen Dekretuko 12. artikulua ezarritakoaren arabera, osoko batzarraren erabakimenera jarriko da dagokion atxikimendu erabakia hartzeko.

Atxikimendu proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udalbatzarrak, etorritako Zegama Lantzen taldeko lau ordezkarien eta EH Bildu taldeko lau ordezkarien aldeko botoekin, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehen.- Adierazitakoaren arabera, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Haur eta Gazteen Sustapenerako Erakundearteko Sareari, Gaztematikari, atxikimendua onartzea.

Bigarrena.- Erabaki hau Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lankidetzan, Gazteria eta Kirola Sailera jakinaraztea.

## **2.- EGOIN. DONEJAKUE BIDEKO PEREGRINO ETXEA EGITEKO LANEN FAKTURA.**

Alkateak, 2019ko uztailaren 1eko Ebazpenaren bidez (Udalbatzarrak 2019ko uztailaren 24an egindako bilkuran hartutako erabakiaren bidez berretsia), Egoin S.A. (IFK.A-48427074) enpresari esleitu zion Donejakue Bideko Peregrino Etxearen lanak egiteko kontratua (2 atala: egitura eta gainazala). Prezioa honako hau izan zen: 82.975,60 euro gehi 17.424,87 euro BEZ (%21), guztira 100.400,47 euro.

Lan hori burutzeagatik, Egoin S.A. enpresak, FV19\_00632 faktura aurkezten du, 103.915,26 eurokoa (BEZ barne).

Hau ikusirik, Udalbatzarrak, etorritako Zegama Lantzen taldeko lau ordezkarien eta EH Bildu taldeko lau ordezkarien aldeko botoekin, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehen.- Adierazitako faktura onartzea.

Bigarrena.- Fakturaren gastua onartzea, 2019ko Aurrekontu Orokorraren 2019 1 0000.601.03.459.00 2018 aurrekontu sailari egotziz, eta ordainketa bideratuz.

### **3.- MURGIL ERAIKUNTZAK S.L. DONEJAKUE BIDEKO PEREGRINO ETXEA EGITEKO LANEN FAKTURAK.**

Alkateak, 2019ko uztailaren 1eko Ebazpenaren bidez (Udalbatzarrak 2019ko uztailaren 24an egindako bilkuran hartutako erabakiaren bidez berretsia), MURGIL ERAIKUNTZAK S.L. (IFK.-B-20986428) enpresari esleitu zion Donejakue Bideko Peregrino Etxearen lanak egiteko kontratua (1 atala: obra gehigarriak). Prezioa: 129.842,43 euro gehi 27.266,91 euro BEZ (%21), guztira 157.109,34 euro.

Lan hori burutzeagatik, Murgil Eraikuntzak S.L. enpresak, honako fakturak eta lan egiaztatagiriak aurkezten ditu:

- 053/19 fk.zb.: 14.376,29 euro BEZ barne.
- 051/19 fk.zb.: 25.532,32 euro BEZ barne.

Hau ikusirik, Udalbatzarrak, etorritako Zegama Lantzen taldeko lau ordezkarien eta EH Bildu taldeko lau ordezkarien aldeko botoekin, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehena.- Adierazitako faktura onartzea.

Bigarrena.- Fakturaren gastua onartzea, 2019ko Aurrekontu Orokorraren 2019 1 0000.601.03.459.00 2018 aurrekontu sailari egotziz, eta ordainketa bideratuz.

### **4.- ERAKUNDE EZ GUBERNAMENTALEN ARTEAN DIRULAGUNTZEN BANAKETA.**

Udalbatzarrak, 2018ko abenduaren 20an egindako bilkuran, herrialde behartsuenekiko lankidetza programa eta dirulaguntzak banatzeko araudia onartu zuen.

Horren arabera, onartutako araudian jasotako baloraketaren erizpideak jarraituz, 2018ko ekitaldiari dagokionez, 4.750,00 euro banatuko ziren eskatutako baldintzak betetzen zituzten erakunde ez-gubernamentalaren artean.

Honela, egindako eskariak aztertu eta baloratu ondoren, eta Gizarte Zerbitzuetako Lantaldeak egindako proposamena jarraituz, Gobernu Batzarrak, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehena.- Udalak onartutako "Herrialde behartsuenekiko lankidetza programa eta dirulaguntzak banatzeko araudia" jarraituz, honako modu honetan banatzea 4.750,00 euroko dirulaguntza:

Izaki: Asociación Chernobil	1.500,00 €
Mundu Solidarioa Helburu	500 €
Taupadak GGKE	500 €
Elikagaien bankua	500 €

Saharar haurraren etorrera	1.250,00 €
Ortzadar	500,00 €

**GUZTIRA 4.750,00 euro.**

Era berean adierazten da, honako ohiko beste laguntzen banaketa egingo dela:

Parrokia: 800,00 euro.  
Zegamako odol emaileak: 450,00 euro.  
Aitzgorri Jubilatuen Egoitza: 1.650,00 euro.

Bigarrena.- Erabaki hau adierazitako erakundeei jakinaraztea laguntzen araudia ezarritakoaren arabera honako hau bete beharko dutela adieraziz:

*“ Dirulaguntza justifikapena:*

Erakunde onuradunek ondoren aipatzen diren agiriak aurkeztu beharko dizkiote Udalari:

a) Programa burutzeko arduradun izendatuko pertsonari dirua transferitu zaiolako frogagiria.

b) Aurrera eramandako programa edo iharduerari buruzko Memoria xehea.

c) Emandako dirulaguntzaren zenbatekoaren eraberako gastuen jatorrizko egiaztagiria edo fotokopia konpultsatuak.

*Justifikatzeko epea:*

Aurreko arikuluan exijitutako agiriak gehienez honako epe hauetan aurkeztuko dira:

a) Aurreko artikuluan lehenengo ataleko egiaztagiria, dirulaguntza jaso eta 2 hilabeteko epean.

b) Hurrengo atalekoak (b eta c) eskatutako egiaztagiria, iharduera subentzionatua bukatu eta 3 hilabeteko epean gehienez.

*Ez betetzearen suposamendua:*

Agindu honetan aurreikusitako betebeharretakoren bat ez betetzeak, hura berrikustea ekarriko du eta hala behar izanez gero, emandako dirulaguntza deusezteak, gutxitzea edo itzularaztea.

## **5.- UDAL POLIKIROLDEGIA, IGERILEKUA ETA BERTAKO TABERNAREN ZERBITZU KONTRATUA LUZATZEARI BURUZKO ERABAKIA.**

Espedientea ikusirik.

Toki Gobernu Batzarrak, 2016ko martxoaren 8an egin zuen bilkuran, Zegamako polikiroldegiko gimnasioko eta udal-igerilekuko (eta taberna) zerbitzuak osoki kudeatzeko

lanen lizitazioa arautuko duen baldintzen plegu ekonomiko-administratiboa eta teknikoa onartu zuen.

Kontratazio prozedura bideratu ondoren, Toki Gobernu Batzarrak, 2016ko maiatzaren 17an Zegamako polikiroldegiko gimnasioko eta udal-igerilekuko (eta taberna) zerbitzuak osoki kudeatzeko zerbitzuen kontratua, Goierri Kirol Teknikoak enpresari (55.556,00 euro gehi 11.666,76 eurotan (BEZ %21) (guztira 67.222,76 euro) esleitzea erabaki zuen.

Kontratazioa arautzen duen baldintzen pleguan adierazitakoaren arabera, zerbitzua emateko epea denboraldi batekoa da, nolana ere, bi aldeen arteko akordioa egonez gero, hau urtero luzatu ahal izango da, gehienez lau denboraldi egin arte.

Adierazitako epea igarotzeaz dagoenez, Udalaren borondatea zerbitzu horiek ematen jarraitzea da.

Horrenbestez, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehena.- Zegamako polikiroldegiko gimnasioko eta udal-igerilekuko (eta taberna) zerbitzuak osoki kudeatzeko zerbitzuen kontratua, Goierri Kirol Teknikoak enpresari, 2020ko abenduaren 31ra arte luzatzea, sinatutako kontratuaren arabera baldintza eta zenbateko berdinekin.

Adierazitako luzapena, kontratuaren araudietan ezarritakoaren arabera, azkenekoa da, eta horrenbestez, Udalak, kontratazio berri bat bideratu beharko du.

Bigarrena.- Goierri Kirol Teknikoak enpresak, kontratazioa arautzen duten administrazio-baldintza zehatzak eta teknikoak bete beharko ditu.

Hirugarrena.- Igerilekuak martxan jartzeko izapideak bete beharko dira Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailak eskatutakoaren arabera.

Laugarrena.- Dagozkion ondorioetarako erabaki hau Juan Ignacio Moyua Ayala jaunari jakinaraztea, Goierri Kirol Teknikoak enpresaren ordez eta izenean.

## **6.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.**

Idazkariak, azkeneko ohiko bilkuratik, Alkateak hartutako ebazpenen berri ematen du:

- 09/1019 erabakia, urriaren 8koa, San Bartolome 8 etxeko jabekekideei lanak burutzeko baimena emanez.
- 010/1019 erabakia, urriaren 8koa, etxebizitzan lanak egiteko baimena emanez.
- 011/1019 erabakia, urriaren 8koa, etxebizitzan lanak egiteko baimena emanez.
- 012/1019 erabakia, urriaren 10ekoa, 28 zenbakidun fakturen erlazioa (urria) onartuz, guztira 38.516,39 euro.
- 013/1019 erabakia, urriaren 10ekoa, hiri izaerako lurren balioaren gehikuntzaren gaineko zergaren kitapen zerrendak onartuz.

- 014/1019 erabakia, urriaren 24koa, 29 zenbakidun fakturen erlazioa (urria2) onartuz, 58.210,63 euro.
- 015/1019 erabakia, urriaren 24koa, etxebizitzan lanak egiteko baimena emanez.
- 016/1019 erabakia, urriaren 24koa, Ostatuko fakturak onartuz.
- 017/1019 erabakia, urriaren 8koa, Santa Barbara 1 kaleko arrandegiaren titulartasun aldaketa onartuz.
- 018/1019 erabakia, urriaren 25koa, Gipuzkoako Kontratazioen Zentralaren bidez bideratutako argindarraren kontrataziora atxikitzea onartuz.
- 019/1019 erabakia, urriaren 30ekoa, 30 zenbakidun fakturen erlazioa (urria3) onartuz, guztira 16.315,57 euro.
- 01/1119 erabakia, azaroaren 5koa, aurkeztutako eskaeraren arabera arma txartela bideratzea onartuz.
- 02/1119 erabakia, azaroaren 7koa, Azpeitiako Hauteskunde Batzordeari jakinaraziz, azaroaren 10ean burutuko ziren hauteskundeetan, laneko baja egoeran aurkitzen zen Udal Idazkariaren eginkizunak burutzeko ordezkia Lierni Asurabarrena Zipitria udal-administraria izango zela.
- 03/1119 erabakia, azaroaren 7koa, etxebizitzan lanak egiteko baimena emanez.
- 04/1119 erabakia, azaroaren 14koa, 31 zenbakidun fakturen erlazioa (azaroa) onartuz, guztira 94.480,23 euro.
- 05/1119 erabakia, azaroaren 14koa, hiri izaerako lurren balioaren gehikuntzaren gaineko zergaren kitapen zerrendak onartuz.
- 06/1119 erabakia, azaroaren 20koa, Ostatuko ur eta telefono kontsumoen fakturak onartuz.
- 07/1119 erabakia, azaroaren 25ekoa, mendi bideak erabiltzeagatik ezarritako fidantza itzuliz.
- 08/1119 erabakia, azaroaren 25ekoa, Zegamako Udalerrian dagoen Zegama Tokiko osasun zentroa mantentzeko gastuak konpentsatze aldera, 2019ko ekitaldirako hitzartutako zenbatekoa (9.170,13 euro), Osakidetzari helaraziz.
- 09/1119 erabakia, azaroaren 29koa, 32 zenbakidun fakturen erlazioa (azaroa2) onartuz, guztira 103.331,52 euro.
- 010/1119 erabakia, azaroaren 29koa, etxebizitzan lanak egiteko baimena emanez.
- 011/1119 erabakia, azaroaren 29koa, etxebizitzan lanak egiteko baimena emanez.



- 012/1119 erabakia, azaroaren 29koa, etxebizitzan lanak egiteko baimena emanaz.
- 013/1119 erabakia, azaroaren 29koa, etxebizitzan lanak egiteko baimena emanaz.
- 014/1119 erabakia, azaroaren 29koa, etxebizitzan lanak egiteko baimena emanaz.
- 015/1119 erabakia, azaroaren 29koa, etxebizitzan lanak egiteko baimena emanaz.

## **7- GALDE ERANTZUNAK.**

- Aritz Agirre Garikano zinegotziak (EH Bildu) adierazten du Euskara Batzordean proposatu dela Zegama Korrika 2021ean hasiera izateko. Zentzu honetan esaten du proiektu bat bideratuko litzakeela. Horretarako, Udala prest agertuko litzatekeen galdetzen du. Alkateak eta gainontzeko kideak, bere baiezkoa adierazten dute, hau lortzea zaila izango dela adieraziz ere. Alkateak, ekonomikoki zenbat suposatu dezakeen galdetzen du, azpiegituretan, etab. Aritz Agirre Garikano zinegotziak erantzuten du zehatz ez dakitela. Horrenbestez, gai hau landuko dela adosten da.
- Aritz Agirre Garikano zinegotziak (EH Bildu) adierazten du, datorren urteko Euskaraldira begira, Udaleko euskara teknikariarekin elkartu dela eta honek, lan zamaren eraginez, lan hori bere gain hartzeko dituen arazoak jakinarazi dizkiola. Horrenbestez, Alkateak adierazten du, langilearekin elkartu eta hau nola bideratu daitekeen aztertuko dela.
- Iosune Azurmendi Telleria zinegotziak (EH Bildu), haurreskolaren sarrerako zoruan ez-labaintzekorik ez dagoela. Alkateak hau aztertuko dela adierazten du.
- Imanol Garmendia Iruretagoiena zinegotziak (EH Bildu) Eguneko Zentroan deskargatzeko arrapalari buruz galdetzen du. Alkateak erantzuten du, aparkaleku horiek Eguneko Zentroarentzat erreserbatzeko asmoa dagoela, arrapala bat eginez. Imanol Garmendia Iruretagoiena zinegotziak galdetzen du, aparkalekua medikura doazenak erabili ahal izango duten. Alkateak dio hori aztertuko dela.
- Imanol Garmendia Iruretagoiena zinegotziak (EH Bildu), neguan argi gutxi dagonenez, frontoian fitxa sistema bat erabiliz, argia edukitzeko aukera badagoen. Alkateak dio, gai hau kontsultatu duela, eta sistema hori ez diotela gomendatzen. Zerbitzu hori, frontoian edo eskolako patioan, norbaiten ardurapean (Guraso Elkarteak, etab.) eman ahal izateko aukerak eztabaidatzen dira.
- Imanol Garmendia Iruretagoiena zinegotziak (EH Bildu) berdintasun teknikariaren gaiari dagokionez zerbait erabaki den galdetzen du. Alkateak erantzuten du ez dela ezer bideratu oraingoan.

Aztertzeo gai gehiago ez dagoenez, hasieran aipaturako eguneko zazpiak eta hamabost minutu direnean Alkateak bilkurari amaiera ematen dio, esandakoa jasorazteko, nik egiazaturiko eta Alkateak sinaturiko akta hau egiten dudalarik.

**Eginbidea.**

Aurrean transkribaturiko akta, ..... orri dituela jasotzeko, zenbakidun paperan ..... zenbakitik ..... zenbakira eta Udalak emandako zenbakietan, ..... zenbakitik ..... zenbakira jasota geratu delarik.

Zegama, 2020ko .....k .....

**O.E./ V°B°  
ALKATEAK/EL ALCALDE**

**Diligencia.**

Para hacer constar que el acta que antecede tiene ..... folios, numerados del ..... al ..... en número de papel timbrado y del ..... al ..... en numeración dada por el Ayuntamiento.

Zegama a ..... de ..... de 2020.

**IDAZKARIAK/ EL SECRETARIO**